

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak tokiko mapa erreformatzeko "errezeta nafarra" defendatu du, udalerrri eta kontzejuen desagerpenaren aurrean

*Erreforma horretarako Gobernu Zentralari adostasuna eskatu dio eta tokiko arloan Nafarroak dituen eskumenak errespetatu ditzala*

Lunes, 24 de junio de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Nafarroako toki-administrazioa erreformatzearen alde agertu da mankomunitate-kopurua murriztuz eta administrazio-zerbitzuak berrantolatuz, udalerrri- eta kontzeju-kopuruari eutsiz, Estatuko erreformaren aurrean; azken erreforma horrek "toki-administrazioaren egiturak berrantolatzen ditu zeharka, bere eskumeneko zerbitzuak betetzeko baldintza ekonomikoak finkatzean".



Barcina Lehendakaria bere agerraldian, Santanderko alkate eta FEMPko lehendakari Iñigo de la Serna alboan duela.

Horrenbestez, Barcina Lehendakariak azaldu du Nafarroako Gobernuaren ekimen legegileak "gaur egun dauden 272 udalerrriak eta 348 kontzejuei eustearen" aldeko apustua egiten duela eta "pairatzen duten kudeaketa-egiturak murriztearen aldekoa, kostuen aurrezteko sustatzeko helburuarekin" mankomunitate-kopurua murriztuz (egungo 67 mankomunitatetik 6ra murriztuko zen), dauden 166 kudeaketa-unitatetik 103ra pasaz lehen une batean, pixkanaka 40 taldetara heltzeko.

Datu horiek guztiak jakitera eman ditu Barcina Lehendakariak "eskumen-sistemaren arrazionalizazioa eta toki-erakundearen erreforma" izeneko mahai-inguruan egin duen agerraldian. Ekitaldi hori Madrilan egin da IESE Business School-ek antolatutako I. Sektore Publikoaren Konferentziaren barnean.

Yolanda Barcinak azaldu du, gainera, Estatuko Legearen aurreproiektua Nafarroan aplikatzeak "era ez eraginkorrean garatutako udal-eskumenak onartzea ekarriko ziola", eta hori Lehendakariaren aburuz, "aipatutako eskumenak justifikatu gabe erabakitze autonomikoaren eremura pasatzea da, eta haren ordezkariak ez da toki-izaerako hauteskunde-prozesuetatik zuzenean edo zeharka ateratu".

Barcina Lehendakariak gaineratu duenez, "Nafarroako udalerrrien

egoera ekonomikoa ona da" eta, "Estatuak esandakoaren aurrean, udalerrri txikiak biztanle gehiago dituzten udalerrriak baino egoera hobean daude". Gainera, oinarritzko zerbitzuen kostuen aldea adierazi du biztanleko eta urteko 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako, Espainian 1.219 eurora heltzen dena; Nafarroan, berriz, 188 eta 136 euro artean dabil eta, beraz, "Estatuko azterketaren emaitzak ezin dira Foru Komunitatera estrapolatu" eta "era berean iragarritako neurriak ez ziren aplikatu behar".

Bestalde, aipatu du "Nafarroako Gobernuak Gobernu zentralarekin bat datorrela toki-administrazioa erreformatu eta arrazionalizatu beharra dagoela" esatean, eta Lehendakariak eskatu du "alor horretan Foru Komunitateak dituen eskumenak errespetatu ditzala, Nafarroaren eta haren toki-erakundeen lana balora dadila, aspalditik antolatzen jakiten dutenak eta beren baliabideak zentzu handiz administratzen jakin dutenak".

Bere agerraldia honako eskaera honekin amaitu du: "Estatuko akordio handia bat egin dadin, eskuzabala eta egingarria dena, gehiengo handi batek onartua gai hori joan-etorriko politika batean bihurtu ez dadin".